




ATHLETIC MARTXA

PARTE-HARTZAILEENTZAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA
ATHLETIC MARTXA 2026
EKAINAK 14, IGANDEA – IRTEERA 9:30

Athletic Martxaren ospakizuna dela eta, sarbideei, garraioari eta antolakuntzari buruzko informazio garrantzitsua eskaintzen dizuegu jardunaldia behar bezala egiteko.



SARBIDEA GARRAIO PUBLIKOAN

- Trena/metroa (3. linea - Euskotren): Lezama amaierako geltokia, gutxi gorabehera 5 minutura oinez.
- Autobusa (Bizkaibus): 3223 lerroa Bilbao-Larrabetzu. La Cruz auzoaren eta Lezamako erdigunearen arteko geltokia.

Ahal den guztietan garraio publikoaren erabilerari lehentasuna ematea gomendatzen da. Hori errazteko, parte-hartzaileek Lezamarainoko Euskotreneko joan-etorriko txartelak izango dituzte eskura.




APARKALEKUA

Ezin izango da Athletic Clubeko kirol-instalazioen lurpeko aparkalekura sartu, AC Cup txapelketarekin bat egiteagatik eta inguruan jende ugari biltzea aurreikusten delako. Hori dela eta, aparkatzeko honako aukera hauek daude:

•Athletic Clubeko kirol instalazioen goiko aparkalekua, Sagardotegiko sarreratik sartuz. Osorik balego, inguruko aparkalekuak ere erabili ahal izango dira:

- (1) Kurtzea-Lezamako tren-geltokia;
- (2) Lezamako pilotalekua

Halaber, jakinarazten da tren geltokiaren eta elizaren artean dagoen aparkalekua erreserbatuta egongo dela Bizkaiko Abesbatzen Eguna dela medio. **Beraz, aipatutako goiko aparkalekuetara zuzenean jotzea gomendatzen da, gorabeherarik gerta ez dadin.**





MARTXAREN IRTEERA PUNTUA

laz, irteera puntua tornuen zabaldegian kokatu zen (sarrera nagusia). Hala ere, AC Cup-ekin pilaketak saihesteko, aurtun langileen aparkalekura aldatuko da (Sagardotegi gunea)

8:30etatik aurrera antolakuntzako langileak izango dira argibideak ematen, bai Sagardotegiaren aurreko sarreran, bai tornuen sarbidean/lurpeko aparkalekuan.



Eskerrik asko zuen laguntzagarik eta ulertzeagarik, jardunaldi segurua eta ondo antolatua bermatzeko.

Athletic Martxan ikusiko dugu elkar!